

1- IRAKURRI TESTUA ARRETAZ.

JON JOLASTOKIAN

Gelako neska-mutil guztiak jolastokian daude. Batzuk, futbolera jolasten ari dira, beste batzuk harrapatzera jolasten ari dira.

Jon saskibaloira jolasten ari da. Joni saskibaloia asko gustatzen zaio. Jon oso ona da saskibaloian jolasten.

Jon, Mikel eta Shilinekin jolasten ari da. Mikelek baloia saskira botatzen du, baina ez da sartzen. Jonek baloia hartzen du, hiru bote ematen ditu eta saskira botatzen du.

Baloiak hasieran, egurraren kontra jotzen du. Gero uztaiaren ingurutik birak ematen ditu eta azkenik, saskian sartzen da.

-Oso ondo, Jon !- esaten dio Shilinek.

-Primeran egin duzu. Zorionak!- esaten dio Mikelek.

2- AUKERATU ERANTZUN ZUZENA

1.- Neska-mutilak ... daude.

- Gelan
- Jolastokian
- Kalean

2.- Jon...

- Futbolera jolasten ari da.
- Tenisera jolasten ari da.
- Saskibaloira jolasten ari da.

3.- Joni...

- Saskibaloia gustatzen zaio.

- Igeriketa gustatzen zaio.
- Futbola gustatzen zaio.

4.- Jon...

- Aitor eta Janirerekin jolasten ari da.
- Jone eta Nahiarekin jolasten ari da.
- Mikel eta Shilinekin jolasten ari da.

5.- Mikelek...

- Baloia saskian sartzen du.
- Baloia ez du saskian sartzen.
- Baloia gora botatzen du.

3- AUKERATU EGIA EDO GEZURRA DEN:

Jon futbolera jolasten ari da.

Jon Aitor eta Peiorekin jolasten ari da.

Joni saskibaloia gustatzen zaio.

Jonek baloia Mikeli pasatzen dio.

EGIA	GEZURRA

Jonek baloia saskian sartzen du.

--	--

4.- ESALDIAK OSATU.

1.- Jon _____ jolasten ari da.

2.- Joni _____ gustatzen zaio.

3.- Jon, _____ eta Shilinekin jolasten ari da.

4.- Jonek baloia _____ sartzen du.